



72. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2013ko urriaren 31an, arratsaldeko zortzi eta erdietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria:

Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

Bertaratutako zinegotziak:

Arritokieta Gonzalez Elosua and..

Iñaki Ostolaza Esnal jn

Peru Fernandez-Arroyabe Txapartegi jn.

Maitane Agirre Arrieta and.

Montse Arana Perez and.

Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.

Edurne Egaña Manterola and.

Xabier Gallastegi Idigoras, jn.

Aitor Leiza Alberdi jn

Isidro Fernandez Echave jn.

Emiliano Cabañas Gonzalez jn.

Eneko Agirre Maiora jn

Ez bertaratuak

Idazkaria:

Gorka Urgoiti Agirre



EGUNEKO AZTERGAIK

1.- OGASUNA.-

1.1.- 2014. EKITALDIRAKO ORDENANTZA FISKALAK ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

<<2013KO URRIAREN 29KO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA, 2014. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ONARTZEKO.

AURREKARIAK

1.- 2013ko urriaren 1eko Ogasun Batzordean 2014. urterako ordenantza fiskalen lehenengo zirriborroaren proposamena aurkeztu zen.

2.- 2013ko urriaren 11ko Ogasun Batzordean 2014. urterako ordenantza fiskalen bigarren zirriborroaren proposamena aurkeztu zen.

3.- 2013ko urriaren 18ko Ogasun Batzordean 2014. urterako ordenantza fiskalen hirugarren zirriborroaren proposamena aurkeztu zen.

4.- 2013ko urriaren 29ko Ogasun Batzordean 2014. urterako ordenantza behin betiko proposamena aurkeztu zen. Baita zuzenketak aurkeztu eta bozkatu ere. Ondoren 2014rako ordenantza fiskalen behin betiko onespenerako Irizpenaren bozketa egin da.

5.- Irizpen honi 2014rako Ordenantza Fiskalen proposamena eransten zaio.(1.Eranskina)

IRIZPENA

Ondorioz, 2013ko urriaren 29an, BILDU (2) en aldeko botoekin, PSOE (1) abstentzioarekin eta EAJ (1) kontrako botoekin, Ogasun Batzordeak aldeko **irizpena jasotzen du** eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Hasierako onarpena ematea 2014.urterako Ordenantza Fiskalen aldaketari eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikulua araberako, udaleko iragarki taulan eta GAOn argitaratu hogeitamar egunetan zehar.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du eta erreklamaziorik aurkezten ez badira behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaian, 2013ko urriaren 29an >>

Aritokieta Gonzalezek (BILDU) gaia aurkeztu du esanez euren irizpide orokorra KPI igotzea (EAEko abuztutik abuzturako 1,9) dela edo izoztea kasu gehienetan, kasu konkretu bat kenduta.



Zumaiako Udala

2013IAKU0011-005-001

Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga edo IBI-an KPI-aren igoera proposatu dute mota guztietan, o sea Industri gune edo landa guneko higiezinetan eta etxe hutsen errekaruari dagokionez, iaz ezarri genuen %75a eta datorren urterako % 75ean mantentzea proposatzen dute eta iaz ezarri ziren salbuespen kasu berberak mantentzea baita.

Ekonomia Jardueren gaineko zergari dagokionez: Ponderazio-koefizientea Foru Aldundiak ezarritakoak dira eta alda daitezken aldagaietan proposatzen dute igoerako koefiziente bakarra KPI-a igotzea eta gogoratu du iaz %7a baino gehiago jaitsi zela.

Trakzio Mekanikoko ibilgailuen zergetan, proposamen desberdinak ibilgailuen moten arabera, turismoetan tramo guztietan KPI-aren igoera eta kongelatu dituzte autobus, kamioi eta traktoreen prezioak. Atoi eta erdi atoiak ere igotzea proposatzen da. Bestelako ibilgailuetan ere KPI-a.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergari dagokionez, ICIO-a maximoetan dago azkeneko hiru, lau urteetan eta izoztuta dago.

Hiru-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga (Plusvalia) tipoa Foru Aldundiak baimendutakoetan maximoetan dagoenez mantendu egiten dute, urte kopuruei dagokien edo aplikatzen zaien portzentaian KPI-a igotzea proposatu dute.

Tasei dagokienez:

Zaborren tasa mota guztietan KPI-a aplikatzea proposatzen dute.

Hirigintzako lizentzia emateagatik irizpide orokorrean izan da jarduera berri horiek ez oztopatzeke edo indartzeko pixkat, tasak izoztea, baina martxan dauden jardueri KPI-a aplikatzea.

Udal hilerriko zerbitzuetan, tasa horiei ere KPI-a aplikatzea eta Taxi lizentzia eta baimen administratiboetan ere KPI-a.

Uren tasari dagokionez, irizpidea ur-kontsumo arduratsu bat bultzatu behar dela eta horretarako kontsumo handiak egiten dituztenei erabatera edo bestera penalizatu egin behar zaiela eta bide horretan bi kontu aipatu ditu: alde batetik datorren urterako tasetatik aurrera **ur-kontsumo kuotak**, orain arte etxe batean lau pertsona bizi edo bat bizi berdin zen kontsumo totala neurtzen zen eta orduan nahiz eta lau pertsona bizi baina kontsumo arduratsu batekin denon kontsumoak ematen zuen bigarren tramuko tarifakazietara, orduan hori ekiditzeko eta benetan kontsumo arduratsua egiten duenari babesteko hemendik aurrera hartuko dira etxe bakoitzean zenbat pertsona erroldatuta dauden eta kuota pertsona bakoitzaren eguneko kontsumoaren arabera egingo da. Eta horrela euren ustetan bermatzen da nahiz eta jende asko bizi kontsumo arduratsua egiten badute ez penalizatzea, eta hori tarifakazio motari dagokionez eta proposatzen diren igoerari dagokionez, kuota finko guztietan KPI-a igotzea proposatzen da eta kontsumoaren arabera doazen tasetan ur-kontsumo arduratsua egiten duenetan, hau da, lehenengo tramuan prezioak



Zumaia Udala

2013IAKU0011-005-001

kongelatu egingo dira, hurrengo tramuan KPI-a igoera aplikatuko dugu eta azkenengo kontsumo gehieneko tramuan 2,5eko igoera proposatzen dute.

Kirol Patronatuko tasei dagokionez, orokorrean KPI igoera aplikatzen da, hemen iaz egon zen BEZ-aren igoera eta orokorrean izoztu egin ziren eta KPI-aren igoera proposatzen da eta gero hor familiak tipologia zabalagoen eskubidea bermatzeko zenbait aldaketa daude familia ugarietan.

Gizarte Zerbitzuko prezioei dagokionez bai Etxez-etxeko laguntza eta baita ere Erabilera anitzeko apartamentuen prezioak izoztu egingo dira. Gizarte Zentruko zerbitzuei dagokionez podologoaren prezioak izoztu egingo dira eta ile-apaindegikoak hemen kiroldegikoak bezala hemen BEZ-a joan den urtean igoera handia izan zuen eta aurten oso margen txikiarekin hari ziren lanean ile-apaindegian eta igoerak daude.

Tabernako prezioak izoztu egingo dira.

Ludoteka eta udalekuetako prezioei dagokionez, KPI-a borobilduz igotzea proposatzen da.

Ekitaldi kulturelei dagokionez, prezioak izoztea proposatu dute, euren iritziz Zumaia ekintza kulturelei dagokionez oso aberatsa eta erakargarria dela eta hala izatea jarraitzea nahi dute, maila kultural handi batek herria aberatsagoa egiten duelako.

Musika Eskolari dagokionez, prezio guztiak izozten dira dantzako ikastaroenak izan ezik. Dantzako ikastaroenak bere arrazoia dauka jarri zirenean ikastaro hauek nahi zen bermatu edo bultzatu jendea euskal dantzetara bultzatzea eta erabaki zen garai haietan prezio bajua ipintzea gero indarra zeukanean pixkanaka beste musika eskolako prezioetara berdintzeko helburuarekin, orduan ari dira urtez urte prezio horretara hurbiltzen. Horregatik dantzen prezioaren igoera.

Bukatzeko esan du aipatugabeko tasa txikietan edo bestelakoetan, orokorrean KPI-a igotzea proposatzen dutela.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) esan du euren nahiz modu positiboan hartu euren ekarpen batzuk jaso izanak baina beste ekarpen garrantzitsu gobernua ez dituela kontuan hartu eta horregatik zuzenketa bezala mantenduko dituztela plenoan; ondoren euren proposamenak azaldu ditu: orokorrean zerga eta tasetan, ohiko irizpideari salbuespen egin eta KPIa 0,7 ko igoera irailatik iraila bitartera kalkulaturik, izan ere egoera ekonomikoari eta familiak pairatzen ari direnari hobe egokitzen zaiolako; gainera 2014ko FOFIMa gehitzea aurreikusten denez hori egitea ahalbidetzen duela nabarmendu du, tasa eta zergetan modulazio xamurra eginez; udal zerga bereziei dagokionez, esan du garestitzea diskriminatiboa dela oso, izan ere zergapetzen dena ez da subjektu pasiboaren ahalmen ekonomikoaren egoera zehatzaren isla, ez baita subjektu pasiboaren



Zumaia Udala

2013IAKU0011-005-001

momentu jakin baten duen errenta kontuan hartzen, hortaz modulazioa proposatzen dute tasa hauetan; IBlren kasuan balio katastrala %1 igo dela esan du, eta horrek beraz bi bideetatik eragingo lukeela igoera, alde batetik oinarria % 1 igotzen delako eta gainera tipoa %1,9 igotzen dugulako eta eurek gehiegizkotzat jotzen dutenez tipoaren izoketa proposatzen dute; politika presupuestarioari dagokionez gastuaren bidetik modulatu beharrean diru sarreratik jotzea proposatu du inbertsio pribatua dinamizatzeko. Azken arrazoi bezala, esan du Zumaia azkeneko 20 urteetan eraman den politika fiskalari esker, hau da, tasetan eta zergetan egon diren igoerak eta egokitzapenei esker ondo posizionatuta dagoela rankingean bai ahalegin fiskalari eta bai presio fiskalari dagokionez, beraz, esfortzu hau edo sakrifiziotxo hau posible zaiola Udalari, behin behinekoz; IBlaren %75 errekaragoari buruz, maizterra erroldatuta egotearen baldintza kentzea proposatu du, subjektu pasiboaren esku ez dagoen zerbañ eskatzen baita, gaineratu du errekaragoaren xedea etxe hutsak merkaturatzea bada, exenzio bezala hartu beharko litzatekela udako etxeak 60 eguneko egonaldia ziurtatzen badute, ur-kontsumoarekin egonaldia justifikatuta hain zuzen ere. Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagokionez, ados daude baina %0,7 KPlarekin. Berdin hiri-lurren balioaren gehikuntza zergarekin, %0,7 KPla; Jardueran Ekonomikoen gaineko zergan, lehengo urteko kopuru berdinean mantentzea proposatzen dute, ekonomia jardueren gaineko zerga delako eta ekonomia jardueri laguntzeko, hortaz, ez dute ikusten momentuz beharrezkoa koefiziente bakarra igotzea; Tasa eta prezio publikoei dagokienez, jakinen gainean jartzeko obrak eta instalazioak izoztea proposatu du; animalia arriskutsuen kasuan, KPla baina askoz gehiago igotzea proposatu dute –adibidez %5 igotzea- ekiditu beharko litzatekeelako horrelako animaliak edukitzea etxean, hori sahiesteko udal tresna bakarra zerga delako; ur kontsumoa neurtzeko sistemaren aldaketa proposamenaren aurrean, bertan behera uztea oraingoz proposatu dute, ez helburu horretara ez delako joan behar eta uraren kontsumo arrazionala bultzatu behar ez delako, baizik eta presaz eta gehiegi analizatu gabe hartu den erabaki bat dela, ez dutela informazio nahikorik horren egokitzapena ikusteko, udal mailan ere ez dela teknikari guztiekin edo behintzat urbanismo, hirigintzako teknikariek eta behar den bezala aztertu, eta hortaz, euren ustetan hor hausnarketa sakonagoa eta luzeago bat beharko lukeela, patxadagoz hartu beharreko hausnarketa, hain zuzen, are gehiago zehaztugabeko kostuak daudelako.

Emiliano Cabañasek (PSE-EE) esan du gobernuak ahalik eta gehien igo nahi dituela eta oposizioak ahalik eta gutxien igotzea; Euren ustez egoera berezi batean aurrean dagoela udala, izan ere Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Diputazioko gobernuak konpondu zitzaizketena katearen maila ahulenean kargu utzi dutelako. Izan ere, udalei behartu die zergak igo behar izatea euren eskumenak gauzatzeko, eta estatuak, erkidegoak eta diputazioak, berriz, euren zergak izoztu dituzte. Bere iritzian, Administrazio nagusiek lagundu beharko liekete udalei. IBlaren errekaraguari dagokionez ez du uste etxebizitzak merkataratuko direnik eta finean zerga-bilketa handitzeko neurri bat besterik ez dela esan du.



Zumaia Udala

2013IAKU0011-005-001

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 7 boto (6 BILDU, 1 ARALAR)

Aurkako botoak: 5 boto (EAJ-PNV)

Abstentzioak: 1 boto (1 PSE-EE)

Erabakia:

1.- Hasierako onarpena ematea 2014.urterako Ordenantza Fiskalen aldaketari eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikulua araberan, udaleko iragarki taulan eta GAOn argitaratu hogeitamar egunetan zehar.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du eta erreklamaziorik aurkezten ez badira behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

1.2.- 2013ko UDALEKO AURREKONTUAREN 18 ETA 19. KREDITU ALDAKETEN BERRI EMATEA.

1. 2013ko Udaleko aurrekontuaren 18 eta 19. kreditu aldaketen jakinarazpena.



Zumaia Udala

2013IAKU0011-005-001

18.kreditu aldaketa				
		Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 1000.227.611.00.09 2013	Diru-bilketa zerbitzua	137.604,42	14.823,06	152.427,48
GUZTIRA ...		137.604,42	14.823,06	152.427,48
		Hasierako kreditua	Gehikuntza edo altak	Amaierako kreditua
2.000.130.000.00.01.2013	Jarduera ekonomikoak	354.384,22	6.580,45	360.964,67
2.000.282.000.00.01.2013	Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko z	479.467,20	731,82	480.199,02
2 0000.391.000.00.01 2013	Isunak	87.709,57	4.233,80	91.943,37
2 0000.393.000.00.01 2013	Berandutza interesak	13.719,43	816,64	14.536,07
2 0000.112.000.00.02 2013	Hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga	1.736.973,00	2.460,35	1.739.433,35
GUZTIRA ...		2.672.253,42	14.823,06	2.687.076,48

19.kreditu aldaketa				
		Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 1000.227.611.00.09 2013	Diru-bilketa zerbitzua	152.427,48	6.372,14	158.799,62
GUZTIRA ...		152.427,48	6.372,14	158.799,62
		Hasierako kreditua	Gehikuntza edo altak	Amaierako kreditua
2.000.130.000.00.01.2013	Jarduera ekonomikoak	360.964,67	1.574,70	362.539,37
2 0000.393.000.00.01 2013	Berandutza interesak	14.536,07	123,54	14.659,61
2 0000.112.000.00.02 2013	Hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga	1.739.433,35	1.149,83	1.740.583,18
2 0000.113.000.00.01 2013	Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko z	606.242,00	1.576,99	607.818,99
2 0000.112.000.00.01 2013	Landa ondasun higiezinaren gaineko zerga	4.334,00	18,40	4.352,40
2 0000.391.000.00.01 2013	Isunak	91.943,37	829,04	92.772,41
2 0000.310.000.00.01 2013	Etkez etxeko zabor bilketa	681.291,00	616,21	681.907,21
2 0000.114.000.00.01 2013	Plusbaliak	162.875,00	210,19	163.085,19
2 0000.321.000.00.04 2013	Mahaiak, azoka lurraren erabilera	26.873,00	257,83	27.130,83
2 0000.322.000.00.01 2013	Badoak,...	12.249,00	15,41	12.264,41
GUZTIRA ...		3.700.741,46	6.372,14	3.707.113,60



1.3.- 2014KO TAXIEN TARIFA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

<< IRIZPENA, GIPUZKOAKO TAXI ELKARTEAREN 2014RAKO TARIFEN PROPOSAMENA.

AURREKARIAK

2013ko irailaren 19ko datarekin Urola Kostako Udal Elkarteak eta Eusko Jaurlaritzak, ondorengo eskaera bidaltzen digute: 2014rako Gipuzkoako Taxi Elkartearen tarifen proposamena onartzea. Udaleko Osoko Bilkurak onartu behar ditu lehenbailehen; Udal Elkartera bidali behar dugularik dokumentazio guztia. Udal Elkarteak Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzara eraman dezan. Eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan, Euskadiko Prezioen Batzordera. Horregatik, urriaren 1eko batzordean dokumentazio guztia banatu eta aurkeztu zen:

2014ko hiri barruko tarifa proposamena					
Tarifa 1*			Tarifa 2**		
Gutxieneko tarifa	Egindako kilometroa	Itxaron ordua	Gutxieneko tarifa	Egindako kilometroa	Itxaron ordua
5,2286	1,1158	21,3091	6,224	1,7796	34,7829
*Lanegunetan 07.00etatik 22.00 arte.					
**Tarifa hau egunero ezarriko da 22.00tik 7.00arte. Bai igande eta araudi autonomiko eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7.00tik 22.00arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.					

IRIZPENA

Hori dela eta, 2013ko urriaren 11n Ogasun Batzordeak onartu du 2014rako tarifen proposamena.

Aldeko botoak: 4 (2 BILDU, 1 ARALAR, 1 PSE).

Aurkako botoak: 0.

Abstentzioa: 2 (2 EAJ).

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea erabaki da.

Zumaian, 2013ko urriaren 11n.
Miguel Zubizarreta Elicegui

Kontu-hartzailea. >>

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 7 boto (6 BILDU, 1 ARALAR)

Aurkako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 6 boto (5 EAJ-PNV, 1 PSE-EE)

Erabakia: 2014ko taxi en tarifa onartu da



1.4.- PLAN EKONOMIKO-FINANTZARIO BERRIA EGIN BEHARRAREN ZERGAITIA AZALTZEA.-

<<KONTU-HARTZAILTZAKO TXOSTENA:

PLAN EKONOMIKOA-FINANTZARIOA BERRIA EGITEKO BEHARRA

Aurrekariak:

2012an Zumaia Udaleko Osoko Bilkurak 3 urtetarako Plan Ekonomiko finantzarioa onartu zuen 2014.urteko ekitaldiraino.

2012an Estatuak onartu zuen 2/2012 lege organikoa eta une horretatik aurrera funtsezko 3 baldintza bete behar zirela ezartzen zuen lege berriak:

- *Egonkortasuna
- *Iraunkortasuna
- *Gastuaren erregela.

Aurreko plan ekonomiko finantzarioan soilik horietako baldintza bat bete behar zen, egonkortasuna, 3 urteko epean eta udalaren datuak bakarrik kontuan izanik.

Lege berri hau indarrean dagoenetik hiru dira batera bete behar diren baldintzak. Eta ez badira betetzen oreka urte bateko epean berrezarri behar da. Hiru baldintzen kalkulak, gainera era bateratuan egin behar dira, udalaren eta bere organismo autonomoen datuak kontuan izanik, baina ez Zumaia Lantzen-enak. **Lege berria eguneratzea izango litzateke lehenengo arrazoia plan ekonomiko finantzario berria egiteko.**

Bigarren arrazoia 2013ko hasierako aurrekontuan gastuaren erregela ez betetzea izango litzateke. Hasiera batean aurrekontua Foru Aldunditik 2013rako landu zenean esan zitzaigun gastuaren erregelaren kalkulurako, 2012ko hasierako aurrekontuko zenbatekoak kontuan izan beharko genituzkeela. Horregatik 2013ko aurrekontua onartu zenean kontu-hartzaileak egin zuen txostenean aldeko izan zen. Baina aurrerago gobernuaren antolamendu berria hobeto islatzeko, diputazioak irizpidea aldatu zuen, 2012ko likidazioa ("O" fasea) bere kalkulurako erabiliz. Memento honetatik aurrera automatikoki gastuaren erregela ez dugu betetzen, 2012ko ekitaldian zehar gastua bere osotasunean ez zelako gauzatu, adibidez pilotalekuaren BEZa edo eguberrietako aparteko ordainsaria ez zirelako gastatu. Hau da plan ekonomiko-finantzario berria egiteko bigarren arrazoia. Gainera 2013.urteko ekitaldian zehar kreditu gaikuntza handia izaten ari gara ikuskaritzako fakturak direla eta, txosten hau prestatu dugun eguneraino 136.676,48€ izan dira.

Hirugarren arrazoia kreditu-aldaketen ondorioz izan zen, gerakinaren bitartez egiten diren kreditu aldaketetan beharrezkoa da Osoko Bilkuran informazio hori azaltzea, aurrekontu egonkortasunean 1.kapitulutik 7.kapitulurainoko gastuak handiagoak direlako, sarrerak baino. Gerakina 8.kapituluko diru-sarrera baita. Zehazki ez da betetzen Udalaren laugarren kreditu aldaketatik aurrera.

Aurreko guztiagatik azaltzen dut,

Urte batera plan ekonomiko- finantzarioa egitea beharrezkoa dela.

Plan hori Udaltzari aurkeztu beharko zaio hilabeteko epean, gehiena jota, espediente hau onartzen denetik kontaktzen hasita; bi hilabeteko epean onartu beharko da, gehiena jota, aurkeztzen denetik kontaktzen hasita; eta martxan jarri beharko da hiru hilabeteko epean, gehiena jota, espediente hau onartzen denetik kontaktzen hasita.

Zumaian, 2013ko urriaren 11an.>>

Aritokieta Gonzalezek (BILDU) gaia aurkeztu du kontuhartzaileak egindako txostenaren laburpena eginez.



Zumaiako Udala

2013IAKU0011-005-001

2.- HIRIGINTZA.-

2.1.- GIPUZKOAKO KONTRATAZIOEN ZENTRALAK AURRERA ERAMANGO DUEN ARGINDAR-HORNIDURA ESPEDIENTEARI ATXIKITZEKO PROPOSAMENA.

<<PROPOSAMENA, GIPUZKOAKO KONTRATAZIOEN ZENTRALAK AURRERA ERAMANGO DUEN ARGINDAR-HORNIDURA ESPEDIENTEARI ATXIKITZEKO.

AURREKARIAK

1.- 2011ko apirilaren 28ko Udal Batzarrak hartutako erabakiaz, Udal honek Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralari atxikitzea onartu zuen.

2.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak esparru akordio bat sinatu zuen Iberdrola Generación SAU enpresarekin, energia elektrikoaren hornidurarako. Esparru akordio hori 2011ko azaroaren 1ean sartu zen indarrean, eta handik urtebetera akordioaren lehenengo luzapena sinatu zen.

3.- Lehenengo luzapen hori aurtengo urriaren 31n amaitzen da; horregatik, irailaren 6an Iberdrolari eskatu zitzaion aztertu zezala bigarren luzapena sinatzeko aukera. Bigarren luzapen horren prezioa kalkulatzeko, baldintza agiritan eta bi aldeak ados jarrita ezarritako berrikuspen formula aplikatu beharko litzateke.

4.- Iberdrolaren erantzuna irailaren 9an jaso zen. Bertan, Iberdrolak uko egiten dio bigarren luzapena sinatzeari; izan ere, baldintza agiritan aurreikusitako formularen arabera, energiaren prezioari % 10,67ko beherapena aplikatu behar zaio, eta Iberdrolak uste du beherapen hori ez datorrela bat energiaren prezioak merkatuan izan duen bilakaerarekin eta, beraz, ezin duela onartu.

5.- Kontratazio organoak aurreikusi ezin zuen egoera baten ondoriozko premia larria oinarritzat hartuta, premiazko kontratazio honen tramitazioa martxan jarri da publizitaterik gabeko jardunbide negoziatuaren bidez. Prozedura honetatik eratorriko den Esparru akordioak 2013ko azaroaren 1etik 2014ko apirilaren 30era arteko indarraldia izango du. Zumaiako udala prozedura negoziatu horretara atxikitu da 2013ko urriaren 2ko 658/2013 alkate dekretu bidez.

6.- Prozedura negoziatuaren bidez premiazko kontratazioaren espedientea hasi ondoren, esparru akordioa prestatzeko eta prozedura irekiaren bidez izapidetzeko lanak hasiko dira.

7.- Zumaiako udalaren kasuan, prozedura ireki honen lizitazioaren prezio zenbatetsiak aurrekontuko diru-sarrerara arruntan %10a gaintzen du eta ondorioz, Udalbatza da kontratazio organoa.

Ondorioz, Plenoaren ezagutzan jartzen da ondorengo PROPOSAMENA onar dezan:

1.- ATXIKITZEA energia elektrikoaren hornidurarako esparru akordioaren kontratazio espedienteari. Espediente hori prozedura irekiaren bidez Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak izapidetuko du, 2011ko apirilaren 28ko Udal Batzarrak onartutako atxikipen hitzarmenean ezarritako termino eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuan jasotako arauetara jarraituz.

2.- BAIMENA EMATEA Gipuzkoako Foru Aldundiari, erakunde honen kontsumo elektrikoaren datuak enpresa hornitzaileari eskatu eta horiek eskuratzeko, kontratazio espedientea arautuko duten baldintza agiritan jaso ahal izateko.

3.- Alkateari behar besteko agiriak sinatzeko ahalmena ematea. >>

ERABAKI ZATIA



Zumaia Udala

2013IAKU0011-005-001

Aldeko botoak: 8 boto (6 BILDU, 1 ARALAR, 1 PSE-EE)

Aurkako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 5 boto (5 EAJ-PNV)

Erabakia:

1.- ATXIKITZEA energia elektrikoaren hornidurarako esparru akordioaren kontratazio espedienteari. Espediente hori prozedura irekiaren bidez Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak izapidetuko du, 2011ko apirilaren 28ko Udal Batzarrak onartutako atxikipen hitzarmenean ezarritako termino eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuan jasotako arauei jarraituz.

2.- BAIMENA EMATEA Gipuzkoako Foru Aldundiari, erakunde honen kontsumo elektrikoaren datuak enpresa hornitzaileari eskatu eta horiek eskuratzeko, kontratazio espedientea arautuko duten baldintza agiritan jaso ahal izateko.

3.- Alkateari behar besteko agiriak sinatzeko ahalmena ematea

3.- BAKE EPAILE IZENDAPENERAKO ESPEDIENTEAREN HASIERAREN BERRI EMAN.

<< KONTUAN IZANIK Bake Epaille eta ordezkoren karguak betetzeko izendatu zen Epaillearen legealdia jadanik iragan dela,

KONTUAN IZANIK Bake Epaille eta ordezkoren hautaketa prozesua Udalbatzarrari dagokiola,

KONTUAN IZANIK Botere Judizialeko Lege Organikoak 101 artikularen arabera, eta ekainaren 7ko 3/1995 araudiak (GAO 1995 uztailaren 13) Bake Epaillei buruzkoa xedatutakoa

KONTUAN IZANIK ezarri beharreko legedian jasotzen dena: Botere Judizialari buruzko 6/1985 lege Organikoaren 99. eta 103. bitarteko artikuluetan eta Mugaketa eta ezarpen Judizialari buruzko 38/1988 legearen 49. eta 51. bitarteko artikuluetan jasotzen dena, alegia

EBAZTEN DUT

Lehena: Zumaia Udalerriko Bake Epaille fitularra eta ordezko Kargua betetzeko espedienteari hasiera ematea eta Udalbatzarrari izendapen proposamena egitea.

Bigarrena: Prozedura osoa bideratzea. GAOean iragarkia argitaratzea. Bai eta 15 laneguneko epea zabaltzea ere, kargu hutsa bete nahi detenek eskabidea egin dezaten, idatziz eta alkateari zuzenduta.- >>



Zumaia Udala

2013IAKU0011-005-001

Alkateak gaia aurkeztu du eta plenoak onartuta batzordean aurkeztuko duela eta eskariak jasota berriro plenora eramango dela behin betikoz bake epailea hautatzeko.

ESKARIAK ETA GALDERAK

1.- Montse Aranak (EAJ-PNV) atentziona deitu du bake epailerako oinarrietan genero akatsak sumatu dituelako, eta ondoren galdetu du ea zein batzordean tratatuko den gaia.

Alkateak esan du Zerbitzuetako batzordean aztertuko dela gaia.

2.- Montse Aranak (EAJ-PNV) Urola-kostako itsasadarraren plan berezia onartzeko eskumena zein organok duen galdetu du.

Alkateak esan du hasierako onarpena Alkateak ematen duela eta behin betikoak plenoak.

3.- Montse Aranak (EAJ-PNV) Zumaia Zu banaketa atzeratu egin dela eta arazoa zein den galdetu du.

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko bederatzia eta hogeita hamaika minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria



ACTA DE LA SESION PLENARIA nº 72

En la villa de Zumaia, siendo las veinte horas treinta minutos del día treinta y uno de octubre de dos mil trece, se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial del Pleno del Ayuntamiento, al objeto de celebrar sesión extraordinaria con arreglo al orden del día previamente señalado y habiendo sido citadas en tiempo y forma, acuden los siguientes miembros de la corporación:

Presidente: Sr. Iñaki Agirrezabalaga Alkorta

Concejales:

- Sra. Arritokieta Gonzalez Elosua
- Sr. Iñaki Ostolaza Esnal
- Sr. Peru Fernandez-Arroyabe Txapartegi
- Sra. Maitane Agirre Arrieta
- Sr. Montse Arana Perez
- Sr. Juan Carlos Cendoya Aizpurua
- Sra. Edurne Egaña Manterola
- Sr. Xabier Gallastegi Idigoras
- Sr. Aitor Leiza Alberdi
- Sr. Isidro Fernandez Echave
- Sr. Emiliano Cabañas Gonzalez
- Sr. Eneko Agirre Maiora

No presentes

Secretario: Gorka Urgoiti Agirre



ORDEN DEL DÍA

1.- HACIENDA.-

1.1.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LAS ORDENANZAS FISCALES PARA EL AÑO 2014.

<<DICTAMEN DE LA COMISION DE HACIENDA DEL 29 DE OCTUBRE DE 2013 PARA LA APROBACION DE LAS ORDENANZAS FISCALES PARA EL AÑO 2014.

ANTECEDENTES

1.- En Comisión de Hacienda de fecha 1 de octubre de 2013 se presentó el primer borrador de las ordenanzas fiscales para el año 2014.

2.- En la Comisión de Hacienda de fecha 11 de octubre de 2013 se presentó el segundo borrador de las ordenanzas fiscales para el año 2014.

3.- En la Comisión de Hacienda de fecha 18 de octubre de 2013 se presentó el tercer borrador de las ordenanzas fiscales para el año 2014.

4.- En la Comisión de Hacienda de 29 octubre se procede a la presentación de las ordenanzas fiscales definitivas para el 2014 así como a la presentación de enmiendas y a su votación. Acto seguido se procede a la votación del Dictamen para la aprobación definitiva de las ordenanzas fiscales para el 2014.

5.-Se adjunta la propuesta de Ordenanzas Fiscales para el año 2014.(anexo 1)

DICTAMEN

En consecuencia la Comisión informativa de Hacienda de fecha 29 de octubre de 2013 acuerda con los votos favorables de BILDU(2); con la abstención de PSOE(1) y con los votos en contra del PNV(1) aprobar **el presente dictamen** y someterlo si procede a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo con el quórum de la mayoría simple de los miembros presentes de la Corporación establecido en el Art.47 de la Ley 7/1.985 de dos de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local, la siguiente PROPUESTA:

1.-Aprobar provisionalmente la modificación de Ordenanza Fiscales para el año 2014 y exponer al público en el tablón de anuncios y en el BOG durante 30 días, de acuerdo con el artículo 16 de la NF 11/1989 de 5 de julio Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

